# DONEJAKUE BIDEA EUSKADIN
## EL CAMINO DE SANTIAGO EN EUSKADI




## GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES

Planifikatu hurrengo eguneko etapa: Erromesen aterpe asko udan bakarrik irekitzen dituzte

Komeni da Bidea bakarrik ez egitea.

Ez ahaztu dokumentazioa, kredentziala eta dirua –edo kreditu-txartela–, eta kontu handia izan baliozko objektuekin.

Eraman etapa bakoitzerako janari eta edari nahikoa eta larrialdietako botika-kutxa.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Komeni da mugikorraren bateria ongi beteta eramatea.

Zure segurtasunerako, jarraitu senaile ofizialei. Trazadura diferente bat adierazten duten gezi horirik aurkituz gero, ez jarraitu halakoei.

Errespetatu ingurunea eta gainerako erromesak.

*Planifica la etapa del día siguiente: Muchos albergues de peregrinos sólo abren en verano.*

*Es aconsejable realizar el Camino en compañía.*

*No olvides documentación, credencial y dinero –o tarjeta de crédito- y ten cuidado con los objetos de valor.*

*Lleva comida y bebida suficiente para cada etapa y botiquín de urgencia.*

*Lleva calzado y ropa adecuado teniendo en cuenta la predicción del tiempo.*

*Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.*

*Por tu seguridad, sigue la señalización oficial. Si encuentras flechas amarillas que indican un trazado diferente, no las sigas.*

*Respeta el entorno y a los demás peregrinos.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Etapa honetan paisaiak bere izaera basatia galtzen du eta gizakiaren eskuak nola otzandu duen ikus daiteke. Gernika-Lumo utzi ondoren Bizkaia landatarraren herri bitxiak aurkituko ditugu, Bizkaiko Jaunek egiten zuten antzinako zin-egite ibilbidea eginez. Urdaibaiko paisaia ederra atzean utziko dugu eta Txorierriko haranean sartuko gara, eta ondoren haran hori igaroko dugu eta Euskal Autonomia Erkidegoko industria-hiriburu izan zenera iritsiko gara, hau da, Bilbora.

*A lo largo de esta etapa, el camino muestra el cambio de un paisaje que pierde su carácter agreste y comienza a ser domado por la mano humana. Una vez abandonamos Gernika-Lumo comienzan a sucederse los pintorescos pueblos de la Bizkaia rural, por donde antiguamente transcurría la Ruta Juradera, que realizaban los Señores de Bizkaia. Dejamos atrás el bello paisaje de Urdaibai para adentrarnos en el valle de Txorierri, que cruzaremos para posteriormente alcanzar la que fuera capital industrial de Euskadi, Bilbao.*

29,8 km 897 m 8h






# Bidezatia / *Tramo*
## GERNIKA-LUMO > LARRABETZU

DONE JAKUE BIDEA EUSKAL HERRIA

km 0 ····· **GERNIKA-LUMO**. Udaletxeko plazatik abiatuko gara eta, Andra Mari elizaren ondotik igaro ondoren, Juntetxerantz eta euskal askatasunen sinbolo den Gernikako Arbolarantz joango gara. Santa Luzia ermitaren ondotik igarotakoan, hirigunetik irten eta Billikario mendira igotzen hasiko gara. Ondoren, baserri batzuen artetik jarraituko dugu eta, pasabide egokitu batetik errepide baten azpitik igaro eta beste errepide bat zeharkatu ondoren, Gerekizko gainera iritsiko gara.

km 7 ····· **GEREKIZKO GAINA**. San Esteban zin-ermitaren ondoan gaudela, merezi du hormetan sartuta dituen erromatarren hilarri bitxiei erreparatzea. Goikoelexalderanzko jaitsieran, seinaleei jarraituko diegu baserri batzuen ondotik doazen auzo-bide eta baso-pistetan zehar.

km 15 ····· **GOIKOELEXALDE**. San Emeterio eta San Zeledonio zin-ermitaren ondoan atseden hartu eta freskatu ondoren, Erdi Aroko Larrabetzu hiribildura abiatuko gara espaloitik.

---

km 0 ····· ***GERNIKA-LUMO****. Partimos de la Plaza del Ayuntamiento y, tras pasar junto a la iglesia de Andra Mari, nos dirigimos hacia la Casa de Juntas y el árbol de Gernika, símbolo de las libertades vascas. Salimos del casco urbano pasando junto a la ermita de Santa Lucía encarando la ascensión al monte Billikario. Después, continuamos entre algunos caseríos y, tras pasar bajo una carretera por un paso acondicionado y cruzar otra, alcanzamos el alto de Gerekiz.*

km 7 ····· ***ALTO DE GEREKIZ****. Situados junto a la ermita juradera de San Esteban merece la pena fijarse en las curiosas estelas funerarias romanas incrustadas en sus muros. Seguimos las señales por caminos vecinales y pistas forestales jalonados por algunos caseríos en el descenso hacia Goikoelexalde.*

km 15 ····· ***GOIKOELEXALDE****. Tras tomar un descanso y refrescarnos junto a la iglesia juradera de San Emeterio y San Celedonio, nos dirigimos hacia la villa medieval de Larrabetzu por la acera.*

KMZ

GPX



eu es

# DONEJAKUE BIDEA
## CAMINO DE SANTIAGO

Kostaldeko Bidea 6 El Camino de la Costa

## GERNIKA-LUMO BILBAO

| Km. | | |
|---|---|---|
| 29,8 | 897 m. | 8 h. |

United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization

**Routes of Santiago de Compostela:**
***Camino Francés* and Routes of Northern Spain**
inscribed on the World Heritage List in 1993

EUSKADI BASQUE COUNTRY

## IKURRAK LEYENDA

| | | |
|---|---|---|
| Iturria *Fuente* | Erromesen aterpetxea *Albergue de peregrinos* | Ospitalea *Hospital* |
| Atsedengunea *Área recreativa* | Bestelako aterpetxeak *Otros albergues* | Medikua *Servicio médico* |
| Eraikin erlijiosoa *Edificio religioso* | Ostatu turistikoak *Alojamientos turísticos* | Farmazia *Farmacia* |
| Interes puntua *Punto de interés* | Diru kutxa *Cajero* | Turismo bulegoa *Oficina de turismo* |
| Jatetxea *Restaurante* | Denda *Tienda* | *Donejakue bideen lagunak Asociación de Amigos del Camino de Santiago* |
| | | Munduko Ondarea *Patrimonio Mundial* |




LARRABETZU Km. 16,2 — GOIKOELEXALDE Km. 15 — GEREKIZKO GAINA *ALTO DE GEREKIZ* Km. 7 — GERNIKA-LUMO Km. 0

# EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Baliatu aukera Goikoelexaldeko gune ederrean atseden hartzeko. Bertan, horma-pintura gotikoak dituen ermitak, gurutzadura errenazentistak, mahaiek, iturriak eta tabernak benetako oasia osatzen dute etapa honetan (ia ez dago zerbitzurik lehen zatian).

*Aprovecha para tomar un descanso en el bonito núcleo de Goikoelexalde; su iglesia con pinturas murales góticas, su crucero renacentista, mesas, fuente y bar son un oasis en esta etapa, que apenas tiene servicios en su primera parte.*





Bilboko sarreran bertan, Mallonako galtzadetan, Donejakue bideen lagunen elkartearen egoitza dago. Bertan, kredentziala zigilatu eta bideari buruzko informazio zehatza lortu ahal izango duzu. Eta, horren ondoan, erromesei zerbitzu bereziak eskaintzen dizkien Bilboko Arkeologi Museoa dago.

*En la misma entrada a Bilbao, en las calzadas de Mallona, se encuentra la sede de la Asociación de Amigos del Camino de Santiago, donde podrás sellar la credencial y conseguir información pormenorizada sobre el camino. Y junto a ella, el Arkeologi Museoa de Bilbao, con servicios especiales para los peregrinos.*



Bilboko Alde Zaharreko kaleetan galtzea eta Plaza Barrian pintxo batzuk jatea gomendatzen dugu. Halaber, Guggenheim museo ospetsura hurbil zaitezke itsasadarraren ertzetik.

*Te recomendamos perderte por las calles del casco viejo de Bilbao y comer unos pinchos en la Plaza Nueva. También puedes acercarte por la orilla de la ría hasta el famoso museo Guggenheim.*

## TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Gernika-Lumoko Turismo Bulegoa<br>*Oficina de turismo de Gernika-Lumo* | 94 625 58 92 |
| Bilboko Turismo Bulegoa<br>*Oficina de turismo de Bilbao* | 94 479 57 60 |
| Claret Enea aterpea<br>*Albergue Claret Enea* | 94 651 01 71<br>609 087 620 |
| Donejakue bideen lagunen elkartea<br>*Asociación de Amigos del Camino de Santiago* | 94 679 20 99<br>687 529 606 |
| Bizkaiko Aterpetxezain Boluntarioen Elkartea<br>*Agrupación de Hospitaleros Voluntarios de Bizkaia* | 609 031 526 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | ((112)) SOS DEIAK |

# Bidezatia / *Tramo*
# LARRABETZU > BILBAO

km 16,2 ·· **LARRABETZU**. Hiribilduko plazan, eskuinera egingo dugu hirigunetik irteteko. Espaloitik jarraituko dugu hasieran, eta Lezamarantz doan errepidearen bazterbide estutik ondoren, kontu handiz.

km 20,9 ·· **LEZAMA**. Udalerriko erdialdea zeharkatuko dugu beti aurrera eginez. Gure ezkerrean, Santa Maria eliza ikusiko dugu eta, Zamudiora iritsi aurretik, Kristo Santuaren ermitaren ondotik igaroko gara.

km 23,6 ·· **ZAMUDIO**. Hirigunea atzean utzi ondoren, ezkerrera egingo dugu San Martin elizaren aurrean, eta industria-eremu txiki bat zeharkatu eta autobiaren gainetik igaro ondoren, gora egiten jarraituko dugu kontu handiz zeharkatu beharreko errepide bateraino. Ondoren, arreta jartzen badugu, antzinako galtzada baten aztarna urriak ikusiko ditugu gure boten azpian.

km 27,6 ·· **ITURRITXUALDE**. Goialdetik Bilboren ikuspegiaz gozatu ondoren, jolas-eremu bat zeharkatu, aparkalekutik ezkerrera egin, eta Bilboko eta Bizkaiko zaindaria den Begoñako Andra Mari basilikarantz jaisten jarraituko dugu. Mallonako galtzadetatik jarraituta, Bilboko Alde Zaharrean dagoen Done Jakue Katedralera iritsiko gara.

km 16,2 ·· ***LARRABETZU**. En la plaza de la villa giramos hacia la derecha para salir del centro urbano. Continuamos primero por acera y después extremando la precaución por el estrecho arcén de la carretera en dirección a Lezama.*

km 20,9 ·· ***LEZAMA**. Atravesamos el centro del municipio siguiendo siempre de frente. Veremos a nuestra izquierda la iglesia de Santa María y antes de alcanzar Zamudio pasaremos junto a la ermita del Santo Cristo.*

km 23,6 ·· ***ZAMUDIO**. Tras dejar atrás el centro urbano, giramos a la izquierda frente a la Iglesia de San Martín y después de atravesar una pequeña zona industrial y pasar sobre la autovía, seguimos ascendiendo hasta llegar a una carretera que cruzamos con precaución. Después, si ponemos atención, veremos los escasos restos de una antigua calzada que asoman bajo nuestras botas.*

km 27,6 ·· ***MONTE AVRIL**. Tras disfrutar de la panorámica de Bilbao desde las alturas, atravesamos el área recreativa de Iturritxualde y en el aparcamiento seguimos a la izquierda para seguir descendiendo hacia la Basílica de la Virgen Begoña, patrona de Bilbao y de Bizkaia. Por las calzadas de Mallona llegaremos a la Catedral de Santiago en pleno "Casco Viejo" de Bilbao.*

# KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

| | |
|---|---|
| • Goikoelexalderaino iritsi arte, ez duzu iturri publikorik aurkituko. Bete goraino kantinplora. | • *Hasta llegar a Goikoelexalde no encontrarás fuentes públicas. Llena bien la cantimplora.* |
| • Billikario mendirako igoeran (Gernika-Lumotik irtetean) eta Iturritxualde mendirako igoeran (Bilbora iritsi aurretik), zure sasoi-maila ongi egiaztatu ahal izango duzu. Animo! | • *Las subidas a los montes Billikario a la salida de Gernika-Lumo y Monte Avril antes de alcanzar Bilbao pondrán a prueba tus piernas. ¡Ánimo!* |
| • Euria egin duen egunetan, kontuz lohiz betetako tarte batzuekin eta Goikoelexaldera jaistean irrist egiteko arriskuarekin. | • *Cuidado en días de lluvia con algunos tramos embarrados y posibles resbalones en la bajada hacia Goikoelexalde.* |
| • Kontu handia izan Gerekizko bidegurutze eta errepide-tarteetan, Larrabetzutik Lezamarako irteeran eta BI-3732 errepidean, Egirleta Mendatean. | • *Extrema la precaución en los cruces y tramos de carretera de Gerekiz, salida de Larrabetzu hacia Lezama y BI-3732, en el Alto de Santo Domingo.* |
| • Etapa honetan baliteke hainbat tartetan baso-lanak egiten ari diren langile eta/edo makinekin topo egitea. Arreta handiz ibili, ikus zaitzatela, eta hurbildu baino lehen abisatu langileei. | • *A lo largo de esta etapa te internarás en tramos donde es probable que encuentres operarios y/o maquinaria realizando trabajos forestales. Extrema la precaución, hazte ver y da aviso a los trabajadores antes de acercarte.* |

www.euskadituriismo.eus

